



**EZKIO-ITSASO
UDALA**

20709 (Gipuzkoa)

EZKIO ITSASO UDALA	
2016 MAR 18	
SARRERA <input type="checkbox"/>	IRTEERA <input checked="" type="checkbox"/>
Zkia. 90	

.....//.....

Nik, Martin Iparragirre Mujikak, Gipuzkoa Lurralde Historikoko Ezkio-Itsasoko Udaleko idazkari-kontuhartzaileak,

Z I U R T A T Z E N D U T:

Udal Osoko Bilkurak, 2016ko martxoaren 16an eginiko ezohiko batzarrean, besteak beste, letraz letrazko erabaki hau onartu zuela:

LEHEN PUNTUA:

ITSASO HERRI-EREMUA EZKIO-ITSASO UDALERRITIK BEREIZTEKO ETA UDALERRI BERRIA IZATEKO ESPEDIENTEA ONARTZEA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIRA BIDERATZEKO, ETA HALABER ADOSTUTAKO "ESTIPULAZIO" DOKUMENTUA ONARTZEA.

2015eko urtarrilaren 12an, EZKIO - ITSASOko Udaletxean, ITSASO eremuko 102 sinadura zituen eskaera aurkeztu zen ITSASO bera bereizteko eta Udalerrri legez berriro eratzeko espedientearen legeko hasiera ebatzi zezala eskatuz.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek emandako 2/2003 martxoak 17ko Foru Arauaren bigarren behin behineko xedapenean, mila bederatzehun eta hirurogeiko hamarkadan herritarren iritsia kontutan hartu gabe elkartu zituzten udalerriek, euren izaera juridikoa berreskuratzeko aukera onartzen zitzaien horretarako Foru Arau horren aurretiko araubidea aplikatuz, hain zuzen, Populazio eta Udal Barrutiak arautzen zituen uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretua eta bertan jartzen diren baldintzak.

Aipatutako eskaera horri erantzunaz, 2015eko otsailaren 23an EZKIO-ITSASO Udaleko Osoko Bilkurak, aho batez, Itsaso Bherria Udalerrria Berreskuratzeko Elkartearen bereizketa prozedurarako Batzorde Sustatzaile modura onartu zuen 1690/1986 Errege Dekretuaren 11 garren atalaren arabera eta, aurkeztutako sinadurak aintzat hartuz, ondasunen banaketa irizpideak adosteko batzordea eratzea eta indarren jartzea ere ebatzi zuen.

.....//.....





**EZKIO-ITSASO
UDALA**

20709 (Gipuzkoa)

.....//.....

Itsaso Bherria Udalerria Berreskuratzeko Elkarteak, 1690/1986 Errege Dekretuak udalerraren bereizketarako eskatzen dituen baldintza guztiak kreditatuz behar besteko agiri guztiak aurkeztu zituen 2015eko uztailaren 27an Udaletxean, Udal Idazkaritzak ere emandako agiriekin espedientea osatuz.

EZKIO-ITSASO ko Udal osoko bilkurak, espedientea osoturik zegoela ikusirik, bere 2015eko uztailaren 29an bereizketa jardunari hasiera formala ematea erabaki zuen eta 2015eko urriaren 20ra bitarteko epez alegazioak jaso ahal izateko jendaurrean iragarkia jarri zuen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, egunkarietan eta Udalaren iragarkien ohol eta puntuetan iragarri zena era honetan:

- Berria egunkarian: 2015-09-11n
- El Diario Vasco Egunkarian: 2015-09-11n
- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean: 2015-09-14an.
- Udaletxeko iragarki taulan.

Alegazio idatzi bi jaso ziren Udaletxean, lehena 2015-10-19an Ezkioko Herri Batzarrak, espedientean erabilitako terminologiaz, banaketarako arrazoi historiko, administratibo, geografiko, soziokultural, ekonomiko eta banaketaren onurei buruzko ñabardurak eginaz, eta, bigarrena, EZKIO-ITSASO ko Udal langileek 2015-10-20an euren kezkak azalduz eta Udal zerbitzuen antolaketaz arituko den edozein batzordetan eta eurei ukitzen zaizkien erabakietan euren parte-hartzea eskatuz.

Itsaso Bherria Elkarteak aipaturiko bi alegazioen erantzunak 2015eko azaroaren 19an aurkeztu zituen.

Adierazitako ibilbidearekin batera, Ezkiok, Itsasok Udal ordezkariak eta langile ordezkariak osatutako ondasunen banaketarako batzordeak, bere lanari ekin zion, behar besteko irizpideak finkatuz eta modu idatzian bai aktetan baita "estipulazio" dokumentuan. Besteak beste, estipulazio edo adostasun idatzi horrek

.....//.....



**EZKIO-ITSASO
UDALA**

20709 (Gipuzkoa)

.....//.....

alegazio idatzietan eskatutakoari ere erantzuna ematen dio Batzordeak, Ezkioko Herri Batzarrak, Itsaso Bherria Elkartearen onespenez, alegatutakoak barneratuz eta herri langileen partaidetza eta eskubideak bermatuz.

Udalaren aldetik adostutako "estipulazio" dokumentu hau ekitaldi honetara onartzeko ekartzen da.

Hori horrela izanik, espedientearen edukiari begira, EZKIO eta ITSASO 1964ko azaroaren 26an 3943 zenbakiko Dekretuaren bidez herritarren iritzirik jaso gabe elkartuak izan zirela (1964 abenduak 15eko Estatu Agintaritza Aldizkarian argitaratutakoa) kreditatuta dago orduko espedientearen kopia konpultsatua Madriletik jaso eta espedientearen tartekatuta dagoelarik. Ezin da, beraz, ITSASO eta EZKIO ren arteko bereizketa bultzatu eta lortu aldera ekimen honen duen zilegitasuna kolokan edo zalantzan jarri ez eta 1690/1986 Errege Dekretua aplika behar zaionik.

ITSASO BHERRI Elkarteak aurkeztutako txostenetan, bestalde, bereizketarako baldintza guztiak dira kreditatuak, hau da, Udalerrri biren bideragarritasun ekonomikoa, jarraian eman beharreko zerbitzuen kalitatea, lurraldearen zabalaren aldetik, elkarren arteko oreka, euren biztanle-gunen arteko tarte fisikoa eta, batez ere, EZKIO eta ITSASO ko herritarren arteko adostasuna estipulazioen dokumentuan azaleratzen dena eta baita etorkizunera begirako elkar lanerako asmoa.

Guzti hori kontutan hartuta, eta 1690/1986 Errege Dekretuaren 11 garren atalaren arabera, aho batez (Udalkideen gehiengo Osoko Aldeko Botuekin) Osoko Bilkura honek honako erabakiak hartzen ditu:

Lehena.- ITSASO eremua EZKIO-ITSASO Udalerritik bereizi eta Udalerrri legez eratzeko ekimena eta espediente behin onartu, Gipuzkoako Foru Aldundiari helarazi ITSASO Udalerrri berria izan dadin behar besteko izapidea eta onarpena eman diezaion eskatuaz.

.....//.....



**EZKIO-ITSASO
UDALA**

20709 (Gipuzkoa)

.....//.....

Bigarrena.- Espediente honi atxikitzen zaion "Estipulazio" dokumentua onartu, garbi utziz dokumentu hori dela aplikagarri orokorrean Itsaso Bherria Elkarteak aurkeztutako espedientearekiko egon daitezkeen kontraesanen aurrean.


Hirugarrena.- Ezkioko Herri Batzarraren eta EZKIO-ITSASOko Udal langileen ordezkariari erabaki honen berri eta jakinarazpena egin eurek aurkeztutako alegazioen onarpena estipulazio izenez sinaturiko agirian barneratzen direla azalduaz.

Laugarrena.- Erabaki honek eragite edo exekuziorako behar dituen urrats edota erabakiak har ditzan, eta aldi berean edozein dokumentu pribatu nahiz publikoa sinatzeko ahalmena Alkate jaunari ematea.

Eta horrela jasota gera dadin, eta bere ondorioak sor ditzan, luzatu dut alkate Jaunak agindu eta ontzat emanik,

Ezkio-Itsaso, 2016ko martxoaren 17a

O.E.
ALKATEA



Honako leku honetan,
2016ko MARTXOAREN 23an
Ezkio-Itsaso, 2016ko martxoaren 23an